

Goierri

366. zenbakia
2009ko irailak 4



Goieki eta Goierriko enpresak

KRISIAREN AURREAN LANKIDETZA SAREA INDARTUZ

*Betiko konfidantza
eta profesionaltasuna*

J. M. Barandiaran 1 ORDIZIA
Tel.: 943 16 00 51 - 615 78 79 08

nick's
ENGLISH CENTRE

Kurtso hasiera

Irailak 17

Izen ematea

Irailaren 7tik aurrera
Arratsaldeko 6etatik 8etara

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:
I. Fdez Ornaburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG




R.P.S.:32/04



GoierriHartxo

Goierriko haurren aldizkaria
19. zenbakia zure esku



Uda Aralarren

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama,

Itsasondo eta

Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Niko Osinalde.

5. Ingurugiro txokoa: Astizko kobazuloak (I).

6. Euskara txukuntzen: Denetik (XXV)

7. Aholkua: Jabego erregistroa eta katastroa.

8. Elkarrizketa: Niko Errasti eta Miren Estensoro, Goiekiko teknikariak.

15. Egitaraua: Euskal jaiak Ordizian.

18. Erreportajea: Ordiziako azoka, mendez mende.

23. Non zer.

26. Argazki zaharra.

8



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Niko Osinalde

*Ekaineko
aurreikuspenak
kontuan
izanda, krisiak
ez du
turismoan,
beste
sektoreetan
bezala eragin
eta aste
bukaieran,
Goierriera etor
daitezkeen
turistak
geureganatu
ditugu.*

Datu onak turismoan

Uda honetan iaz baino turista eta bisitari gehiago pasa dira Goierriko turismo bulegoetatik. Goierriko turismo bulego eta museoetatik, hau da, Idiazabal, Lizarrusti, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zeraindik 9.615 pertsona pasa dira uztaila eta abuztuan: 3.726 pertsona uztailan eta 5.889 pertsona abuztuan, iaz baino % 40,8 gehiago. Jendearen joan etorria handiagoa izan da eta horregatik turismo zerbitzuen erabilera igo egin da; jendeak prezioari begiratu dio, gure destinoa oso ondo posizionatu dugu azken urte hauetan, kalitateari dagokionez batez ere, eta batzuk horregatik etorri dira lehen aldiz barrualdera. Hauekin batera, urtero errepikatzen dutenak jaso ditugu, atzeritarrak barne, eta Euskadi barruan eginiko kanpaina promozionalek ere bere eragina izan dute, museoetan eguneko bisitari asko somatu baititugu. Beraz, krisiak eraginda, destino berri bat aurkitu duten turista berriak geureganatu ditugu, batez ere inguruko Erkidegoetakoak (Aragoi nabarmen igo da Frantziarekin batera), eta hau alde positibotzat jo behar dugu denok pairatu dugun tesuinguru ezkor honetan.

Turismo bulegoetatik pasatakoek gain, beraien kontura ibili direnak ere izan dira, Goierriko eta museo desberdinetako foiletoak Euskadi guztiko turismo bulegoetara banatu direlako, baita Goierriko eta Gipuzkoa barnealdeko alojamentu guztietara ere.

Datuetan eragina izan duten faktore batzuk hauek dira: garbi dago krisi ekonomikoa agerian geratu dela, jende gehiago etorri da, baina gastu gutxiago egin dute orokorrean; atzeritarrak ere, aurreko urteetan bezala, igo egin da. Eguraldiak ere izan du bere eragina: lainotuta egon denean edo hondartzarako giorik egin ez duenean jende gehiago hurbildu da museoetara, baino egun eguzkitsuetan bertako jendea ere hondartzara joan da. Seguran Ertaroko festa ez egoteak ere eragin du, aldiz, Lizarrustitik jende gehiago pasa da (eguraldi ona medio) eta orokorrean, banakako gehiago ibili dira taldeak baino.

Alojamenduari dagokionez, nekazal-turismo eta landetxeetan egonaldiak igo egin dira, uztailan eta abuztuan iaz bezalakoak izan dira datuak. Hoteletan iaz baino erreserba gutxiago eduki dituzte eta alojamentu mota guztietan ere, iaz baino dei gutxiago jaso dira; alojamentuetan, orokorrean, azken momentuko erreserbe-

kin funtzionatu da, Euskadi guztian gertatu den bezalaxe.

Aipatzekoak

● Aurten ere, lehen taldea katalanena izan da eta turista atzeritarrak nabarmen egin du gora (frantsesa batez ere); dena den, katalanak eta madrildarrek behera egin dute zertxobait. Hauek utzi duten hutsunea Euskadi barruko turistek eta inguruko Erkidegoetakoek bete dute, hauen presentzia nabarmen igo baita.

● Donostia-San Sebastian Turismo entitateko bazkideak garenez, Donostiako turismo bulego berrian, Goierriko foiletoak eta udako agenda banatu dira udaran zehar; honekin batera Donostiako gidak banatu dira aurten ere: Donostiako gida berrian Goierriko publizitate orri bat azaltzeaz gain, Donostiatik abiatuta Gipuzkoa barnealdean egin daitekeen eta deskribatzen den txangoa Goierriko eskualdea da; berdin gertatzen da Euskadiko gida berriekin: Berdea, Santiagoko Bidea, natura eta gastronomiako programetan nabarmen azaltzeaz gain, ibilbide berrietan ere (Euskadik 4, 7 eta 15 egunetakoak), Bilbo, Donostia eta Gasteiz ondoren, Goierri bisitatzeari gomendatzen da lehenik.

● Udako agendari dagokionez, beste behin ere garbi geratu da oso zaila gertatzen dela bertako jendea mugiaraztea nahiz eta erreztasun guztiak eman; kanpoak ere, museoak bisitatu ditzuzte baina ez agendan markaturiko egunetan, eta datu honek, bisitaria bere kontura antolatzen dela erakusten du. Guztira 169 pertsona apuntatu dira bisitetara uztaila eta abuztuan. Aldiz, udako agenda dela eta, medio desberdinetan lortu dugun Goierriko promozioa oso garrantzitsua izan da.

● Larraitzeko informazio puntua dela eta, pentsatutakoa baino hobe joan da eta irekita egon den udako hilabete honetan 1.089 pertsona igaro dira bertatik; euskaldunetz gain, beste Erkidegoetako turistak eta atzeritarrak pasa dira baita ere informazio eske (% 35).

Beraz, laburpen bezala, uda ona izan dela esan dezakegu, ekainean zeuden aurrikuspenak kontutan izanda: krisiak ez du turismoan, beste sektoreetan bezala eragin (hainbeste behintzat), aste bukaeran Goierriera etor daitezkeen turista berriak geureganatu ditugu (kotxez 2-3 ordura dagoen turista), baina udazkenari begira, adi egon behar dugula erakutsi digu egoera berri honek.

Astizko kobazuloak (I)

Ekoturismo eta jasangarritasunaren eredu

Mendukilo leizea Astizko kontzejuaren herri lurretan kokatzen da (Larraun bailaran, Nafarroa), Aralarko mendizerraren magalean. Aintzinatik ezaguna da koba honen kokapena: artzainek aspalditik erabili izan dute babesleku bezala (sarrerako gelaren izena, "Artzainzulo", hortik datorkio) eta lehen ikerketa arkeologikoen arabera aurrehistoriako momenturen batean ere gizakiak okupatua izan da. Sarrerako gelaz gain, hain iristerrazak ez diren beste gelen ikusgarritasuna oinarri hartuta, 1987. urtean koba hau gaitu eta jendeari irekitzeko ideia sortu zen. Leizearen beraren eta bailararen garapenaren onurak eta kalteak aztertu ostean, 2005eko udan ireki zen Mendukilo koba turismoari.



gain aparkalekutik kobaren sarreraraino doan bidea zagor (todouno) iragazkorrekin egokitua dago, euri urak filtratzen jarrai dezan eta horrela leizearen orekari ez eragiteko.

- Harrera etxean azpimagarriena teilatuko euri urak jasotzen direla da, gero komunetan erabiltzeko. Bertan erabiltzen diren ur guztiak iragazki biologiko batez tratatzen dira berriro isuriak izan aurretik.

Leizea egokitze lanak

Leizea egokitzerakoan, errespetuzko gatzea, iraunkorra eta azpiegitura desmuntagarriak aukeratu dira. Eneko Agirre Astizko kobak S. M.eko gerentearen arabera, aukera hauek ez dira beti izan ez errazena ezta merkeena ere, askotan arazoak planteatu dituztelarik.

- Kobazuloaren 6 geletatik 3 besterik ez daude turistezko egokituta. Gai nontzeko hiruetan sarbideak oso estuak dira eta hauek egokitzeak itzulgarriak ez diren lanak egitea eskatzen du.
- Lehen gelara sartzeko hartxintzar eta zagorraz

betelana egin da, ondoren galtzada egokitzeke. Gainera labainduz mugi ez dadin hormigoizko zerrenda batez mugatu da. Egokitzen honen ura jatorrizko bidetik iragaztea ahalbidetzen du eta honek azpian geratzen diren gelen oreka karstikoa bermatzen du.

- Barneko geletan pasabide flotakorra, metalikoa, galbaniztua eta desmuntagarria egokitu da. Pasabide hau leku batzuetan soilik finkatzen da, espeleotemai ahalik eta gutxien eraginez. Egitura metaliko galbanizatuaren aukera espreski egin da erdoiak, eta ondorioz kutsadura, ekiditeko. Azkenik, pasabide desmuntagarria aukeratzaren arrazoia egunen batean koba ixtearen erabakia hartuz gero, koba zegoen bezala uzteko izan da.
- Sarrerako langan xaguxarretan espezialista batek diseinaturiko burdinsarea erabili da. Barra horizontalez eginda dago, bertikalek animalia hauen hegaldian maniobrak egitera behartzen dituelako. Burdinsare honek bestelako faunaren sartu-irtenak ere ahalbidetzen ditu.

JAKIN BEHARREKOAK

Hildako abereak hegazki sarraskijaleentzat berri. Behi eroen auzian debekatu egin zen gorpuk mendian uztea baina orain Europako Parlamentuak eta batzordeak araudi zuzenketa batzuk onartu ditu. Honako kasuetan utzi daitezke animalia hilak mendian: sarbide zaila den lekuetan, animalia jasotzea arriskutsua denean eta beti ere animalia eta gizakientzat kutsakorrek diren gaitasunak ez badu.

Peruko Kongresuak Indigenen aurkako bi dekretu atzera bota ditu.

Unidad Nacional izan ezik, beste guztien botuek lortu dute. Dekretu hauek zirela eta istilu larriak egon dira Amazonian. Talde Indigenen ordezkariak eskertu dute beraien eskariak entzun izana eta legeak egiterakoan beraiek atzean ez uztea desio dute. Zuzenketari esker ez dira 45 milioi hektarea baso suntsituko bioerregai landatzeko.

Fuerteventura eta Gerês-Xurés Biosferako Erreserba izendatu dituzte.

Espanian 40 toki daude zerrenda honetan eta 551 munduan. Fuerteventura-ko irla osoa erreserba da eta itsasoko 5 milia. Bestalde Gerês-Xurés Ourenseko sei herri eta Potugaleko beste bostek osatzen dute.

2009ko Europako mugikortasun astea: irailaren 16tik 22ra. "Zure hiriko klima hobetu" izango da aurten golehema.

Denetik (XXV)

Maizpide
euskaltegia

Irteterakoan / irteteen / irtendakoan

Kontuz, aizue, esan nahi dugunaren arabera aukeratu beharko dugu eta!

Irteterakoan

Ekintza hasi baino lehentxeago gertatutakoari egiten dio erreferentzia:

- ✓ Sukaldera **sartzerakoan** atea zabaltzen dut (egokia)
- ✓ Saskibaloi-jokalariek jokoa **basterakoan** berotze-ari-
ketak egiten dituzte (egokia)
- ✓ Kalera **irteterakoan** musu ematen diot amonari (egokia)

Irteteen

Bi ekintzak une berean gertatzen direla ematen du aditzera:

- ✓ Artzainak **txistu egitean** txakurra adi jartzen zen (egokia)
- ✓ Atea **ixtean** behatza barrapatu zuen On Emeterio maisuak (egokia)
- ✓ Kalera **irteteen** ikusi zuen bere bizitzako emakumea (egokia)

Irtendakoan

Ekintzaren ondorengo uneari erreparatuko diogu:

- ✓ Botika hau **hartutakoan**, ez duk atzera buruko minik izango! (egokia)
- ✓ Komunetik **irtendakoan** piztuko dizut telebista (egokia)
- ✓ Gizona piura bartan **ikusitakoan** barrituta geratu ziren serorak (egokia)

Berdin dio / berdin zait / berdin dit

Zerbait modu batera edo bestera egiteak ez digula axola adierazteko, igualtsu digula adierazteko, izenburuko formak erabili izan ditugu euskaraz... baina zuzenak ote dira guztiak? Bada, bai, baina ondorengo adibideetan azkena denari buruz ezin dugu gauza bera esan!

- ✓ Berdin dio, Laxaro! Zuk ezin baduzu, nik neuk egingo dut (egokia)
- ✓ Arraina berdin zait niri, baina txuleta... kilokoa izan dadila! (egokia)
- ✓ Berdin dit zer esan dizun Txominek! Egin duzuenak ez du barkamenik! (egokia)
- ✗ Berdin du Txindokira edo Aizkorrra jo! Kontua mendi-ra joatea da (desegokia)


Berdindu

“Berdin du” ez, baina “berdindu” aditza bai! Hainbat adiera dituzenez, komenta ditzagun ezagunenak:

- ✓ Ondo berdinduta atera ginen ezkontza hartatik (gosea berdinduta)
- ✓ Heriotzak berdintzen omen ditu aberatsak eta pobreak (parean jarri)
- ✓ Zulotzar bori berdintzeko barea dezente beharko diagu, Miel! (betetzeko)
- ✓ Zor bori berdindu nabi badute, gogotik egin beharko dute lan (zorra kitatu)
- ✓ Aulkia berdindu nabian ibili da Higinio (aulkia “herren” egon ez dadin, lau hankak elkarren parean jartzen)
- ✓ Harri-jasotzaileak ez zuen barria lepoan berdindu (lepo aldera eraman, parean jarri)
- ✓ Kostatuko zaio Goenatxori Inaxio Perurenaren marka berdintzea (pisu bera jasotzea)

Berdin dit nola eusten diozuen!
Sartzean “klik” egin
behar du, “aittu”?

Konforme, Juanita! Baina
bukatutakoan beste lanik ez
agindu, e! Gizona, honezkero, zain
izango dinat etxean!



“Basque Connection” delakoa...

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Topa egiterakoan hautsi zen koparen zati bat.
2. Berdin dio nola egiten duzun, gizona! Buruz behera egin nahi baduzu ere!
3. Dani Oiarbide trikitilari handiak kanta horren azken notak jotzean piztu ziren aretoko argiak.

OHARRA: lehenengoan, **topa egitean** behar du (lehentxeago ere izan zitekeen arren); bigarren eta hirugarrenak zuzenak dira!

Jabego erregistroa eta katastroa

AHOLKUA

Batzuetan gertatzen zaigu uste dugula finka jakin baten jabe garela katastroa gure izenean dagoelako, edo zenbaitetan uste izaten dugu finka jakin bat Jabego Erregistroan ez dagoenean berez ez garela haren jabe. Zein da Erregistroaren helburua, eta zertarako balio du Katastroa?

Erregistroa

Erregistroak ondasun higiezinaren gaineko jabetza zein hauen gaineko eskubideak inskribatzeko eta hauei publikitate emateko balio du. Ez da derrigorrezkoa finkaren gaineko jabetza inskribatzea haren jabe izateko, baina segurtasun juridikoa lortzen da, behin inskribatuta, eskubideak Auzitegien babespean aurkitzen

dira, eta Erregistroak dioena soilik hartzen da egiaztat. Gainera finkak dagoen erregistroan inskribatzeak euren transmisioa errazten du, eta derrigorrezkoa da horiek hipotekatu nahi badira.

Katastroa

Katastroan ondasun higiezinak deskribatzen dira, euren ezaugarrien bitartez: ezaugarri fisikoak (azalera, egoera eta mugak, irudi grafikoa, eraikitze-urtea, besteak beste), ezaugarri juridikoak (titularraren datu pertsonalak / espedienteak), eta ezaugarri ekonomikoak (lur-zoruaren balioa, eraikinaren balioa eta balio katastrala). Bere erabilera oinarritzakoa da Administrazioarentzako, hainbat

gaietan erabili ahal izateko: zerga-gaietan (PFEZaren kalkulua, lur-zoruaren plus-balia...), gai juridikoetan (Jabego Erregistroaren laguntza, segurtasuna higiezinaren trafikoari...), laguntza zein subentzioen esleipena, eta abar.

Jabego Erregistroan finkak deskribatzen dira, baina benetan garrantzia duena da jabegoaren zein bestelako eskubideen gaineko datuak ematen dizkigula. Katastroan, aldiz, jabe batzuk agertzen dira, baina benetan garrantzia duena da finken deskribapen fisikoak, hauen ezaugarri fisikoaren zein planoen erregistroa da, hau oinarritzakoa baita euren balioa kalkulatu eta identifikatuak edukitzea.



Monica Larrañaga
Gertu aholkularitza

**RENAULT**
LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

**izal**
IMAZ eta CONTRERAS
PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045
Ondramuño
baserria
IDIAZABAL

**Mendizabal, C.B.**
ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk. **ZALDIBIA**

**IBAI ONDO**
AROSZTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**



kutxa



Niko Errasti eta Miren Estensoro, Goiekiko teknikariak

Goieki eta Goierriko enpresak lankidetzan, krisiari aurre hartu nahian

Abuztuko oporrak hartu aurretik, Goiekiko (Goierriko Garapen Agentzia) Niko Errasti eta Miren Estensoro teknikariekin hitzordua jarri genuen, krisiaz hitz egiteko. Irailetik aurrera zer etor ote litekeen, egoerak okerrera egingo duen... Goiekik eta Goierriko enpresek Lankidetza Sarea osatu dute, indarrak elkartuz, arazoak antzeman eta krisiari ahalik eta hobekien aurre egiteko.

Miren Estensororentzat, bizi duen lehenengo krisialdia da. Niko Errastik, aurrekoa ere ezagutu zuen. "Baina krisi guztiak ezberdinak dira. Seguru-seguru hurrengo krisia ere etorriko dela eta desberdina izango dela. Gainera, inork ez dakien krisi mota. Lehen garai batean, produktibitate ezaren krisia zen eta oraingoan ez da produktibitatearen krisia. Enpresak produktiboak dira, lehiakorak ere bai. Baina oraingoa, beste eragin batzuen krisia da. Azken batean, diru faltaren krisia da, geldieraren krisia eta horren ondorioz, etorri den geldiunea".

Iazko irailean, Goierri, Jasurekin hasi ginen krisia zegoela jabetzen.

Errasti: Jaso, eraikuntza munduarekin lotuta zegoen eta zuzen-zuzenean harrapatu zuen krisiak.

Estensoro: Estatuko merkatuan erabat sartuta zegoen eta horrek gehiago eragin dio. Paralizazioa oraindik handiagoa izan da Estatu mailan.

Zuek noiz hasi zineten larritzen.

Errasti: Nahiko golpean harrapatu gaitu denok.

Estensoro: Entzuten zen, baina... hona ez zela iritsiko pentsatzen genuen.

Errasti: Orain perspektiba batekin begiratzen hasten bazara, ikusten duzu aldagaiak ikusten zirela zerbeit gertatuko zela esateko.

"Krisi guztietatik indartuta atera dira Goierriko enpresak"

Krisietatik beti ikasten omen da zer bait.

Errasti: Krisietatik ikasten dena da, irekita egon behar dugula. Burua irekita. Eta egun guztiak ezberdinak direla. Bizitza, etengabeko aldaketa dela. Bizitza dinamikoa da. Orduan, irekita egon, ikusi eta kokatu behar duzun lekuan kokatu, bakoitzak oreka bilatuz. Premisa batzuekin jokatzea, beharbada, estatiko jokatzea da eta bizitza aldakorra da. Irekita egon behar gara etortzen diren gauzetarako. Bizia eguneratu behar da egunero. Egunero hausnarketa egitea, egunero bideak ikusten...

Krisi guztietatik indartuta atera dira Goierriko enpresak. Erreformak egiten dira, berregituratu egiten zara, baliu erantsia non dagoen ikusten duzu, ikertu egiten duzu, berritu egiten zara, bide berriak urratu... Krisi guztietatik aurrerapauso puntu batzuk ematen dira. Indartuak ateratzen dira. Baina jakina, bizi hori ez daukatenak, bidean gelditzen dira.

Etxebizitzaren prezioaren igoera, jendea lanean %130ean aritzea... gehiegizkoa izan eta horrek, noizbaiten, bere lekura etorri behar zuen. Non, nola eta zein eratan inork ez zekien. Eta "ondo" gauden bitartean, inor ez da kezkatzen, ez enpresak, ez langileak, ez gobernauak, ez bankuak... inork nola ez zuen neurririk hartzen, hautsi egin da momentu batean. Drastikoki gainera. Momentu honetan, 2009. urtean bat-batean harrapatu gaitu. Irauten ari da jendea, gero ere egoera aldatuko denaren esperan-

tzan. Bitartean, pentsatzen dut, erreformaren batzuk emango direla mundu mailan, horrelako gauzarik berriz ez gertatzeko. Edo kontrol gehiago, oreka gehiago... Baina geroari begira, aditu batek esaten zuen bezala, hemendik urte batzutarahaztu egingo zaigu dena eta lehengo bidetik jarraituko dugu. Oreka hori mantentzeko gaitasuna izango bagenu eta beste era batera funtzionatzeko modua izango bagenu, askoz ere egonkorragoa izango litzateke. Baina badirudi erraza ez dela.

Krisi honek gainera, sektore asko harrapatu ditu.

Errasti: Denak. Lehen sektore batzuk harrapatzen zituenez bezala, orain denak. Dirua mugitzen ez baldin bada, sektore guztiak gelditzen dira. Batzuek beste batzuek baino gehiago, inzidentzia gehiagorekin, baina orokorrean dena.

Estensoro: Gainera, oso kanpoko eraginengatik sortu da. Globalizatuta dagoen sistema batean, inork ez dauka baritarik gelditzeko eta horrek eragiten du krisiak mundu mailan, sektore guztietan eta gure eguneroko bizitzan eragitea. Hori da gertatzen ari dena azkenean.

Okerrena pasatu dela diote batzuk, beste batzuek okerrena etortzeko dagoela diote. Epeetan ez dago adostasunik... Krisitik ateratzen ari garenen seinalerik ba al dago?

Errasti: Niri iruditzen zait, ekonomia paralizatua dagoela. Ez okerrera eta ez hobera. Gertatzen dena da, lehengo urtean, enpresek oraindik eskariak zituztela eta horiei erantzuten ari diren urte hasieran. Baina eskari gehiago ez da sortu. Beraz, oraintxe, paralizatua dago urte hasieratik bezala, baina gertatzen da, eskari horiek bete diren neurrian, gehiago ez dagoela. Eta segurasko, paralizazio jarraipen horrek eramango gaitu okerrera joatea.


Olagi Urte guztian zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegia
Jatetxea
Sagardotegiko meua
© 943 88 77 26 ALTZAGA



Arkupe
ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK
J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

xetai
nafarroa etorbidea 1
beasain
www.xetai.net





Estensoro: Krisi ekonomiko bat hasten da nabaritzen, lehenengo konfiantza faltatik. Konfiantzarik ez badago, horrek inbertsioa gutxitzen du, maileguak gutxitzen dira, gastu publikoa gehitzen da beraz zor publikoa handiagoa da, horrek denak eragiten du langabezia handitzea. Hobekuntza, justu kontrakoa litzateke: konfiantza hartzen hasten da jendea pixka bat, kontsumoa handitzen da, horrek inbertsioa handitzen du, mailegu gehiago daude eta horrek azkenean langabezian du eragina. Oraintxe hobekuntza seinalerik ez dut ikusten. Uda aurretik beti, langabezia tasak hobetu egiten dira, Goierrin ere hori gertatu izan da, eta uda ondoren, alderantziz, ziu-rrenik hala gertatuko da, langabezia gehituko dela.

Udazkenean gainera, enpresa askotako EREak bukatu egingo dira eta horrekin batera langabezia igo egin daiteke. Urte bukaera gogorra espero behar al dugu?

Estensoro: Nik uste dut EREak bukatzen direnean ERE berriak planteatu beharko direla. Lehen esan dudana, irailetik aurrera langabezia gehitzen da eta aurten ere hori aurreikus daiteke.

Errasti: Ekonomia paralizatua dago eta paralizazioa zenbat eta denbora luzeagokoa izan, ondorioa da okerragoa izango da. Irailetik aurrera, urte bukaera arte, egoera hobetzen ez da joango. Batzuk esaten duten brote berdeak badi-rela eta, guk kontrastatu ditugun enpresetan, jendeak ez du horrelakorik ikusten. Bizitasunik ez dago momentu honetan. Helburua, irautea da. Aurreko urteetako koltxoiekin iraun eta ea garai berriak etortzen diren. Linea hori da, errealitatea hori da.

Krisi egoera honetan ere, Goierriko enprekin ha-

rremanetan al zaudete? Zein lan ari zarete egiten?

Errasti: Enpresa munduarekin elkartzen gara, bai.

Estensoro: Gure asmoa, gure azkeneko helburua, eskualdeko enpresei zerbitzua ematea da, beraien lehiakortasuna hobetzeko. Zein gomendio ematen diegun? Krisi hau ez dago gure esku, Goierriko enpresek ez daukate tresnarik aurre egiteko. Gelditzen zaigun

dependienteak diren hornitzaile sare handia edukitzea. Beste beharra hori zen: daukaten harremana hobetu dezaketela enpresa traktoreekin.

Errasti: Beste hitz batzuekin esanda, egoerari nola aurre egin? Orain arte, enpresekin banaka-banaka ibili gara lanean. Orain garbi ikusten da, bai eskualdeko foro orokorrean, bai gaitzaren ikerketetan, sarea

an, bi daude nagusiak. Bat, komertzializazio gaia da. Hemen gauza bat, oso-oso bitxia dago: komertzializazio gaia orain arte Goierri ez da landu. Jendea erosi egiten ziotelako. Oso produktiboak izan gara, egin zaleak, kalitatearekin... eta hor kokuatu gara. Guregana zetozen enpresak zeuden. Gaurko egunean hori ez da gertatzen. Jendeak ikasi egin behar du kanpora ateratzen. Bai Goierri, bai Gipuzkoa, bai Euskal Herria, bai Estatura, bai kanpora. Komerzializazio gaia lantzen ari gara formazio aldetik. Baita ere ari gara lantzen, bakarrik atera beharrean, zergatik ez, hiru edo lau elkartu eta komertzializatu, produktu osoagoak merkaturatuz. Gure linea hori da.

Beste beharra da, guk daukagun egitura aprobetxatzea. Enpresa traktoreak hor daude munduan zehar. Munduan zehar ikusten dute errealitatea zein den, konpetentzia non dagoen. Azken finean, esango genuke, nondik joan behar litekeen zenbait arlotan. Harremanetan jartzea bai enpresa

peratuz, ikertuz, azken finean, teknologian aurreratuz.

Estensoro: Eskutik joatea. Handiek ere asko daukate ikasteko txikiengandik. Eta txikiek, handiengandik. Gurdi berdinean joatea denak. Sare honen helburua hori da. Gainera, beraiek izan daitezela bideratzen dutenak. Goiek, laguntzaile eta dinamizatzaile papera dauka baina benetako kolaborazioa behar da.

Errasti: Bidea egiten joan behar gara. Lehen Mirenek esan duen bezala, krisia hor dago, eta beste krisi batzuk ere etorriko dira. Baina guk zer egin behar dugu? Guk ezin dugu konpondu, gure gaitetik dago. Guk egin behar duguna da, gure onena ematen saiatu. Gu mugitzen ez baldin bagara, inor ez da mugituko guregatik. Ildo horretan mugitzeko, informazioa eduki behar dugu, gaitasuna, inestigazioa eta pixka bat lotu nora joan nahi dugun. Proiektu horren berri enpresa traktoreek badakite. Enpresa traktoreak dibertsifikatuta daude produktuetan eta merkatuetan, eta beraien informazioa oso-oso-oso garrantzitsua

Ekonomia paralizatua dago. Ez okerrera eta ez hobera. Urte hasieran, enpresek oraindik eskariak zituzten eta horiei erantzuten aritu dira. Baina eskari gehiago ez da sortu. **NIKO ERRASTI.**

bakarra da, ahal dugun ondoen aurre egitea eta etorkizunari begira, pauso hori aurreratzea. Buelta etortzen denerako, gauzak hobetzen joatea. Lankidetzaren Sare bat ari gara lantzen. Batez ere enpresa txikiekin ari gara lanean eta gure helburua da, beharrak detektatu, eta euren arteko lankidetzaren bitartez, aurre egin diezaietela dauzkaten beharrei.

2008 urte bukaeratik enpresak biltzen ari gara, enpresa txikien foroa sortu da. Bertan detektatu dira eskualdeko enpresa txikien beharrak. Behar horietatik ikusi da batez ere, komertzializazioaren munduan, merkaturatzeko behar horiek inoiz baino garrantzitsuagoak direla. Lankidetzaren bitartez, denon arteko esperientziak elkartrukatu, ikasi eta sinergiak bilatuz, komertzializazio arloan adibidez, hobetzeko eta indartzeko gaitasuna izatea nahi dugu.

Eskualde txikia izanda, enpresa traktoreen kopurua dezente handia da. Horrek eragiten du, inguruan oso

joratu behar dela. Sinergiak bilatu. Azken finean, sare horrekin enpresen artean balioa sortu. Lehiakortasuna bilatzen da, baina lehiakideak ez daude Goierri, baizik eta munduan zehar. Zenbait kasutan, beste leku batzuetan merkeago egiten dituzte eta dudarik gabe, lehiakorragoak dira, eta momentu honetan, balioa eransteko gaitasuna lortzea da gakoa. Balio hori lortzeko, sarea erabiltzen dugu. Sinergiak bilatzeko, akordioak lortzeko elkartzen gara. Lana taldean egin, gero ari begira ikasteko. Oso tresna garrantzitsua da eta indartzen ari garena. Horretan daude sartuta hainbat enpresa txiki.

Azken finean, helburua ere bada, beraien errealitatea, beraien ikuspegia, azterketekin kontrastatu, (bailarako lehiakortasun azterketa bat eginga dago), eta kontrastatu ondoren, sinergiak bilatu, puntuak atera eta beharrak, hutsuneak ikusi eta horren arabera, akzio planak eratzen hasi.

Akzio plan horien arte-

Krisi hau ez dago gure esku, Goierriko enpresek ez daukate tresnarik aurre egiteko. Gelditzen zaigun bakarra, ahal dugun ondoen aurre egitea da eta etorkizunari begira, pauso hori aurreratzea. **MIREN ESTENSORO.**

azpikontratatistak edo enpresa txikiak, eta enpresa handiak. Enpresa handien ja-kinduria enpresa txikiaren gan traspasatzea eta ea non kokatzeko gai garen geroari begira, eta horretan proiektuak atera. Eta proiektu horietan, balioa erantsi. Behar bada, lehen esan dudaren bezala, sinergiak bilatuz, koo-

da.

Garbi dago, lankidetzaren horretan, akordioa egon behar dela. Enpresa traktoreek irabazi egin behar dute eta enpresa txikiek ere bai. Biek irabazi behar dute. Azken finean, enpresa traktoreari, hurbilean, inguru lehiakorra izatea interesatzen zaio. Hori oso-oso ga-

rrantzitsua da eta hori be-
raiek ere badakite. Edozein
momentutan, zuk pieza bat
daukazu, proiektu bat dau-
kazu, Txinan igual merkea-
go egingo dizute, baina ara-
zoak konpontzeko behar-
bada ez daude prestatuak.
Edo gertutasun horrek ematen
digun jokoa edo gaitasuna.
Lehen egiten ari ginen gauza
batzuk utzi eta beste gauza
batzuk hartu. Baina jakina,
nola egiten da? Akzioaren bitartez.
Akzio hori gauzatzen ari gara,
taldean jarritz, potentzial bat
sortuz, indar bat badagoela ikusi,
eta harremanetan jarri, bai
enpresa traktoreekin, bai
edozeinekin kolaboratzeko,
proiektu estrategikoetara jo-
ateko. Gauza garrantzitsu bat
dago hemen: askotan kanpoko
jendearengan sinisten dugu.
Baina hemen jakinduria handia
dago enpresetan. Hemen baino
jakinduria gehiago non dago?
Akziora pasa behar gara en-
presa txikiek dituzten eguneroko
errealitatearen beharrei erantzuteko.
Horrekin lortuko dugu enpresa
handiekin eta gure ekonomiarekin
uztartzea.

Orain arte, “ondo” bizi izan gara.

Estensoro: Gabeziak ikusten dira krisietan.

Errasti: Orain kontzientziazio minimo bat dat dago. Zerbait egin behar dugu, nolabait, zerbait berria. Lehen enpresak, %120ean ari ziren lanean, lana atera ezinik, eguneroko lanak atera ezinik. Endorbarik gabe, kontzientziaziorik gabe. Enpresari batek esaten zuen bezala, horrela beheko harriak ez dira ikusten. Orain momentu honetan, egoera beste bat da eta beste bide batzuk bilatu eta urratu behar ditugu.

Bi eratako planteamen-
duak uztartu nahi ditugu: batetik, kontzientziazio maila bat lortu behar dugu, beste era batera funtzionatu behar dela geroari begira. Mundua globalizatua da,



zoritxarrez edo zorionez, errealitatea hori da eta gurpil batean gaude. Eta bestetik, batu, epe motzeko beharretan. Epe motzeko beharrak dira, erantzunak, emaitzak, proiektuak gaurko eguneko enpresak martxan jartzea eta gurpilari buelta batzuk ematea.

Bide bat egiten joan behar dugu. Hazten joan behar dugu, denok batera. Perretxikuak behetik gora sortzen dira eta askotan sinistu izan dugu perretxikuak goitik behera datozela. Ikerketak egiten dira, datuak hor daude, kontrastatzen da enpresen errealitatearekin eta horren ondorioz, goazen aurrera egitea. Aurre egiteko akziora pasatzera joaten gara. Komertzializazioa da akzio bat, lana bilatzea. Lana bilatzea, epe motzean, eta gero epe ertainera eta epe luzera.

Espainiako merkatutik kanpora ateratzeko ari omen zaie enpresei aholkua ematen.

Estensoro: Normalean kanpora komertzializatzeko, produktu propio bat behar da. Hemengo enpresak ez dira produktu propioko enpresak. Auxiliarrak dira eta sektore bati lotuta. Kanpora begira egon beharko lukete, baina askoz ere zailagoa daukate.

Modua den ala ez? Kanpoan ere gauzak ez daude

oso ondo.

Errasti: Gure egitura garbia da Goierri: sektorea mekanikoa da. Horren inguruan bi enpresa mota daude: batzuk traktoreak, handiak, produktu propioa daukatenak eta trakzionatzen dutenak eta horiek dagoeneko munduan zehar daude, zorionez. Bestela ezingo ginatekeen hemen bizi. Enpresak mundu mailan dibertsifikatuak daude eta hori oso oso garrantzitsua da. Nola trakzionatu dibertsifikazio hori eta internazionalizazio hori enpresa txikietan? Handien bitartez ari dira. Baina ez al dago ahalmenik, barka jokatu beharrean, sinergiak bilatuz eta kooperatuz, handi hauei eskaintzen diegun bezala, besteren bati eta beste leku batzuetan eskaintzeko? Hori dena aztertu egin behar da. Azken finean, momentu honetan, lehenengo pauso bezala da, bailara sendo bat izan, bailarako enpresa traktoreei erantzun... baina bigarren pausoa izan daiteke, zergatik ez, dibertsifikatu eta beste enpresa batzuei erantzuteko gaitasuna izan?

Estensoro: Gai baldin bagara sortzeko, enpresa txikien arteko talde bat, non denen artean gai izango diren pieza zehatz bat ateratzeko, hori aprobetxatu daiteke kanpora ateratzeko.

Errasti: Enpresa txikietan

Gai baldin bagara sortzeko, enpresa txikien arteko talde bat, non denen artean gai izango diren pieza zehatz bat ateratzeko, hori aprobetxatu daiteke kanpora ateratzeko.

MIREN ESTENSORO.

komertzializazio planteamendurik ez zen egiten. Ez dago arduradun komertzialik. Hortik internalizazioa salto bat ematea... bide bat dago. Sekula ez da berandu izaten.

Krisiaren bukaerako datarik inork ez du jarri oraindik. Ezkorrenean asko lutzatzen baldin bada? Nahi edo espero baino gehiago luzatuko balitz krisia?

Estensoro: Koltxoia daukatenek aurrera egingo dute.

Errasti: Ezjakintasun izugarria dago. Konturatzen zara ez dagoela datu zehatzik,



Enpresa txikietan
jendeak bere
plantilla mantendu
nahi du. Zergatik?
Urte asko kostatzen
izan delako
plantilla hori
lehiakorrazate, prestaturazate,
esperientzia
edukitzea.
NIKO ERRASTI.

noiz errekupe-ratuko den... Ezagun batekin topo egin nuen, munduan zehar ibiltzen da, datuekin gora eta behera ibiltzen da, ez dakit zertan oinarrituta, baina hau esan zidan: niri iruditzen zait, 2009a txarra izan-go dela, zalantzarik gabe. Urtea zenbat eta aurrerago joan, okerrago. Defenditze-ko gaitasuna daukatenak eta koltxoia daukatenak aurrera joango dira eta merkatuak berak erregulatuko ditu enpresak. 2010. urtean

errekupe-razio txiki bat emateko aukera izango da eta 2011. urtetik aurrera, ikusiko dira abantaila batzuk. Zertan oinarritu den ez dakit.

Goierri-enpresa traktore garrantzitsuak ditugu eta Goierri-en "ondo" gaudela esaten da. Irla bat dela esaten da.

Estensoro: Gehien jo dituen sektoreak eraikuntza eta automobilgiltza izan dira eta Goierri-en jardura ekonomikoan hain garrantzitsuak diren enpresa traktoreak justu ez daude sektore horietan. Irla bat dela esan daiteke bai.

Errasti: CAF kasu aparta da. Diru publikoa mugitzen ari da, CAFek proiektuak dauzka. Azken finean, CAF, beti bezala dago, edo hobeto. CAFen dabilzan enpresa asko daude Goierri-en eta horiek salbatzen gaitu, dudarik gabe. Horregatik egiten da berezia Goierri-ko egoera. Egoera hau ez da beste baileretan bizi.

Estensoro: 2.300 langile planta bat, 40.000 biztanleko eskualde batean... Horrek eragina dauka.

Gerta liteke CAFi beste garai batean etortzea krisia eta gu orduan okerrago egotea.

Estensoro: Nik ez dut eza-gutu baina, CAFen krisia egon zenean, ez zela krisialdi egoera bat esaten du-

te. Gertatu daiteke, baina bide onetik doazela ematen du.

Krisi honetan kaltetuenak zeintzuk ari dira izaten?

Estensoro: Ebentualak.

Errasti: Garbi dago, enpre-setan, kaltetuenak ebentualak izan direla. Ebentualak zeudenez enpresek bere ahal guztia egiteko gaitasuna izan dute. Hori izan da errealitatea. Enpresa handiak bazituzten eta horien arabera, pixka bat moldatu eta egituratu dute euren plantilla, eta enpresa txiki batzuek ere bai.

Sindikatuak beti esan izan dute, enpresari-ek aprobetxatu egiten dituztela horrelako egoerak langileen aurkako neurriak hartzeko. Goierri-ko enpresari-ek neurri ego-kiak hartzen direla uste al duzue?

Errasti: Enpresa handiek beraien ahalmena dute jendea lortzeko. Gaurko egu-nean, gizarte dagoen beza-la, gazteak, ikasketak ditue-nak, nahiago izaten du en-presa handietara joatea, beste perspektiba bat ikus-ten delako, segurtasuna... Baina nik enpresa txikietan gauza bat ikusten dut: jendeak bere plantilla mantendu nahi du. Zergatik? Urte asko kostatzen izan delako plantilla hori lehiakorrazate, prestaturazate, espe-

rientzia edukitzea. Jendeak ez du nolanahi bere plantilla murriztu nahi, pentsatzen duelako, krisi hau pasatu ondoren, pertsonalaren beharra egongo dela. Pertsonal formatua, esperientziaduna izatea. Eta urteetan enpresa ezagutzen duena, inplikaturaz dagoena mantendu nahi du enpresariak. Nik ikusten dut alde horretatik apustu bat badagoela, dagoen koltxoiarekin mantendu eta aurrera jotzeko.

Krisia bukatu ondoren, pertsonala behar duzu. Gero ere, nahiko den pertsonala da, lehen zegoen eskarerekin batera, kualifikaturaz, ikasketak dituenaz izango da. Pertsonal falta dago, baina kualifikaturaz. Beraz, enpresek daukatena mantendu egin nahi dute, txiki-ek behintzat.

Langabezia gelditu direnei, zein gomendio ematen diezue?

Errasti: Gure konpetentzia ez da baina beti aholkatu izan diegu Goierri Eskolara joateko. Han ikasketak eta ikastaroak badaudela. Langai bitartez ari da bide hori lantzen. Gero ere argia aterako da eta nik uste dut argia ateratzeko prestatuak egon behar garela. Prestaturaz egotea da, formatua egotea, enpresek hori exijitzen baitute.

Estensoro: Aurreraxeago-tik joan behar gara. Krisi egoera batean gaude baina enpresei aurretik joatea aholkatzen diegun bezala, langileei ere bai.

Errasti: Gu gizarte mota batean kokatuta gaude eta gizarte mota hori, maila batekoa da. Beste herrialde batzuekin alderatuta, beste maila batean gaude. Maila horrek exijitzen du, gauza batzuek utzi eta beste batzuek hartu. Beste horiek hartzeko, formazioa behar da eta pertsonalaren kualifikazioa. Eta gero eta gehiago exijituko da. Langileak hori jakin egin behar du eta prestatu egin behar da.

Ordiziako Tabernarien partetik




Euskal Jai zoriontsuak guztioi!



TAUR

OLANO
TABERNA



Urdaneta 27 20240 Ordizia Tel.: 943 88 00 23





JOSUNE
EDERGINTZA ZENTROA

Tel.: 943 882 888
E-posta: centrojosune@yahoo.es
J.M. Barandiaran plaza, 3 ORDIZIA

FOTODEPILAZIOA - FOTOGAZTETZEA - FOTOAKNEA

AURPEGIRAKO ETA GORPUTZERAKO BIRSORTZE IRRATIFREKUENTZIAK

MIKROPIGMENTAZIOA - MAKILAJEA





Irailak 4, ostirala:

22:00etan: Plaza Nagusian, Alur dantza taldearen 'Sua' ikuskizuna.

Irailak 5, larunbata:

11:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era: Haurrentzat parkea puzgarriekin, Beti Alai Pilotalekuan.

19:30ean: Erraldioen Alardea, trikitilariak eta txarangak lagundurik.

21:30ean: Plaza Nagusian, 'Eusko Dance Live 2009' ikuskizuna.

Irailak 6, igandea: **Jubilatuaren eguna:**

9:00etan: Goiz eresia trikitilarien eskutik.

12:00etan: Meza Nagusia.

14:15ean: Jubilatuta eta pentiodunen bazkaria Beti-Alai pilotalekuan.

Segidan: Dantzaldia.

Irailak 8, asteartea:

17:30ean: Plaza Nagusian, 'Bertako produktuekin egindako Elkartearen arteko XIX. Sukaldaritza Lehiaketa' eta 'Goierriko odolki onenaren XV. dastaketa-lehiaketa'.



"Santanazaleen kofradia 1509-2009" argazki erakusketa irailaren 13ra arte egongo da zabalik.

D'Elikatuz zentroan. Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 10:00-13:00 / 16:00 - 19:00 ;

Larunbata eta igandea: 11:00-14:00 / 16:00-19:00

keta'.

18:30ean: Plaza Nagusian Erraldioen irteera, trikitilariak eta txarangak lagundurik.

Irailak 9, asteazkena:

Azoka berezia. (Ikusi hurrengo orria).

Irailak 11, ostirala:

22:00etan: Plaza Nagusian, 'Nahia' dantza taldearen ikuskizuna.

Irailak 12, larunbata:

11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara: Haurrentzat parkea puzgarriekin, Beti Alai Pilotalekuan.

riekin, Beti Alai Pilotalekuan.

19:00etan: Euskal dantzen erakustaldia herriko kaskoan Alkarkide (Alkartasunako dantzari ohiak) taldearen eskutik.

19:00etan: Plaza Nagusian, 'Sagardo-festa', sagardoaren dastaketa.

22:15ean: Barrena Kultur Etxean, Jon Enbeitaren 'Gitarra lagun' ikuskizuna.

Irailak 13, igandea:

12:00etan: Barrena kultur Etxean, Lazkao-Txiki XVIII. Bertsopaper lehiaketaren sari-banaketa.

HERTZA taberna

Goizeko 6etatik irekita

- ◆ Eguneko menua
- ◆ Pintxoak
- ◆ Plater konbinatuak

Euskal jai zoriontsuak!

943 160 471
Rezola kalea z/g
ORDIZIA

Sandra

Ileapaindegia

Euskal jai
zoriontsuak
denontzat!

Tel.: 943 087 056

Garagarza plaza 10

ORDIZIA

Euskal jai zoriontsuak pasa ditzazuela!

HIDALGO

Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

Diseinua

Kalitatea

Berrikuntzak

Garantia

Legazpi Kalea, 3
943 88 04 06
ORDIZIA

Irailaren 9an, azoka berezia

9:00etan: Goiz eresia Ordiziako txistularien eta trikitilarien, Tolosako dultzaineroen eta Zumarragako trikitilarien eskutik.

10:00etan: Gazta, ganadu, fruta eta barazkien, lumagorrien eta perretxikoen erakusketa eta lehiaketak.

Goizean: "Euskal Herriko kalitatezko jaki eta edariak ikusgai: Elikadura osasuntsua, bertakoa eta kalitatezkoa" argitalpena banatuko da, Joxe Migel Barandiaran enparantzan.

12:00etan: Joxe Migel Barandiaran plazan, fruta, barazki eta perretxiko lehiaketen sari banaketa.

12:30ean: Garagartza plazan, ganadu eta lumagorri lehiaketen sari banaketa.

Segidan, bertsolarien, dultzaineroen eta trikitilarien saioak.

13:00etan: Beti-Alai pilotalekuan, gazta lehiaketaren sari banaketa.

17:30ean: Beti-Alai pilotalekuan, profesionalen arteko eskuzko pilota partidak: 1. Partida: Saralegi – Zabala / Mendizabal I - Iza. 2. Partida: Olaizola II – Mandizabal II / Ben-goetxea VI - Begino.

19:30etan: Joxe Migel Barandiaran plazan, 'Urrezko Aizkolari Txapeldunaren Liga 2009'. Aizkolariak: Floren Nazabal, Angel Arrospide eta Iñaki Azurmendi. Harrijasotzaileak: Iñaki eta Inaxio Perurena.



URDANETA KHAF harategia

Kalitate hobea!

Prezio berean!



Kalitateko
Haragi
Fidagarria



*Euskal jai zoriontsuak
pasa guztiok!*

Urdaneta 25
943 16 15 14
ORDIZIA



Ordiziako azoka, mendez mende

borja de la cuesta
Euska! jai zoriontsuak denoi!

Kortinak,
alfonbrak,
etxeko arropak
Estoreak eta panel japonesak

Tel.: 943 880 432
Plaza Nagusia, 4
ORDIZIA

✕ Jabekideen komunitatea osatzea
✕ Komunitateen kontabilitatea
✕ Akten idazketa
✕ Aurrekontuen eskaera
✕ Aholkularitza legala
✕ e.a.

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

XI-XII. mendeak

Ordiziako lehenengo azokak San Bartolome ermitaren inguruan egiten hasi ziren, hori baitzen garai hartako ordiziarrek eta inguruko ekoizleak elkartzeko lehen tokia.

1268

Alfonso X. El Sabio, Gaztelako erregeak eratu zuen Ordiziako herria, bokazio militar eta merkataritzarako joerarekin. Gasteizko forua eman zitzaion herriari. Merkataritzako lehen topaketa horiek arautu ziren eta feria sendotu egin zen.

Ana Galdosen 'Villafrancatik Ordiziara' liburuaren arabera, "1268an Villafranca eta Bergara batera sortuta, Alfontso X.a erregeak osatutzat eman zuen Oria eta Deba ibarretan hiribilduak sortzeko programa. 1256an zuen abiatuta programa hori, Tolosa hiribildua sortuta eta segur aski Segura ere bai urte berean. Programaren helburu orokorra hauxe zen: Kantauri itsasoa eta Gaztela barrua lotzea, eta, horrela, segurtasun handiago erdiestea bide hori egiten zuten merkatarientzat. Hiribilduak sortzeak atsedeen leku bat, segurtasuna eta salerosketarako toki bat ziurtatzen zizkien Gaztelako merkatariei. Izan ere, horiek arriskuan izaten ziren, ibilbideak luzeegiak baldin baziren. Lapur ugari ibiltzen zen bide inguruetan, eta bidekoei erasotzen zieten, bereziki Gipuzkoa eta Nafarroa arteko muga inguru horretan".

1512

Herritar gehienak eragindako sute larria gertatu zen. Horregatik, eta ekonomia pizteko, Juana la Loca erreginak "Errege-gaitasuna eman zion herriari, urteko




asteazken guztietan astero-ko feria egiteko".

"Joana I.ak emandako pribilegioari esker, 1512tik aurrera, hiribildu barruan astero azoka egiten hasi ziren Villafrancako biztanleak. Erreginaren pribilegioaren onura bakarra ez zen izan, ordea, asteko azoka antolatze baimena, beste hamaika eskubide ere ekarri baitzituen berekin. Ildo horretan, aipatzekoa da es-

kubide horiek ez zitzaizkielela hiribildu guztiei aitortzen. Horrela, adibidez, azoka frankoetan ez zen inolako zergarik ordaintzen saldutako edo erositako produktuen truke. Eta zerga hori, Erdi Aroan sortua 'alcabala' izenez, koroaren diru iturri nagusia zen. Teorian, udal zerga bat zen, nahiz eta salbuespen ugari izan ziren. Produktu batzuk (ogi ego-sia, zaldiak, mandoak, txan-

ponak edo liburuak) libre ziren zerga horretatik. Beste kasu batzuetan, eta lurralde motagatik, toki hori libre zen alkabalatik. Adibidez batzuk: errege-bideetako ostatuak, mugako herri batzuk, eta leku jakin batzuetan egiten ziren azokak; Villafrancakoa, esaterako.

Hizpide ditugun azokak Gaztelako errege-erreginen merkataritza politikaren ondorioz ezarri zituzten, tru-



keak suspertzeko (funtsekozkoak ziren merkataritza garatzeko) eta ekonomia indartzeko nahiak eraginda. Horrela, azoka frankoak antolatzen ziren pribilegioak emateaz gain, feria garrantzitsuenak (besteak beste, Medina del Campokoa, Europa mailakoa baitzen, Amberes, Lyon eta Besançon-Piacenza hirietakoak bezala, eta Medina de Rioseco eta Villalón-ekoa) arautzeko ordenantzak finkatu zituen monarkiak.

Villafrancako asteko merkatuan nekazaritzako soberakina eta beste toki batzuetako produktuak egoten ziren salgai. Bizilagunek edozer erosi zezaketen: nola haragia, olio, ardoa, arraina edo gatz, hala egurra, ikatza, oiha, erakuntzako materialak zein erremintak... Villafranca inguruko landa eremuetako produktuak ziren gehienak. Adierazi bezala, ez zen zergarik ordaindu behar, baina udal agintariak zorrotz betetzen zuten dena. Hiribilduko kontzejuak, salgaien egoera gainbegiratzeko gain, pisuak eta neurriak zuzen ala oker erabiltzen ziren egiaztatzen zuten. Hiribilduko biztanleen interesak zaintzeko egiten zuten hori guztia, egoera txarrean zegoen produkturik edo okerreko pisurik saldu ez ziezaieten. Asmoak asmo, bertako biztanleak behin baino gehiagotan kexatu ziren, salgaien prezioak ez zitzaizkielako egokiak iruditzen. Horren adibidea dugu, besteak beste, 1541eko epaiketa: Villafrancako kontze-

juak beste hiribildu batzuk auzitara eraman zituen, bere jurisdikzioan saldutako produktuen prezioekin ados ez zegoelako.

Produktu batzuk garestiagoak ziren, urrutiagotik zetozelako. Izan ere, horrelako salgaiak garraiatzeko joan-etorrietan, bidesaria izeneko zerga ordaindu behar izaten zuten udal jakin batzuetan ezarritako aduanetan. Lehorreko portuak ziren aduana horien kokalekuak. Gaztelaren mugetan barrena, barnealdeko eremuetan finkatu zituzten, bidesariak kobratzeko. Beraz, salgaien garraioari gastu osagarri hori erantsi behar zitzaion. XVI. eta XVII. mendeetan zehar, Gaztelak Bizkaia, Nafarroa, Aragoi, Valentzia eta Portugaleko mugetan finkatutako aduaneke bere horretan iraun zuten. Beraz, lurralde horiek zeharkatzen zituzten produktu guztiek tokiak tokiko aduana zerga ordaintzen zuten. Villafranca, lehenago ere, Gipuzkoaren eta Nafarroaren arteko lehorreko portua izandakoa zen. Horrela, Nafarroatik Gipuzkoako portuetara, Lizarrustiko bidea zeharkatuz, salgaiak zeramatzen merkatari guztiek Villafrancan geratu eta zerga ordaindu behar izaten zuten. Dirudinez, jarduera horri esker hiribilduko ekonomia nabarmen garatu zen, bidaiarien eta salgaien joan-etorrien ondorioz trukeak ugari eta ondasun eta zerbitzuen banaketa areagotu egin baitziren. Baina denboraren poderioz, Ataunera eraman

zuten aduana, gune erosoagoa zelakoan. Tolosan ere, bertatik bertara, beste aduana bat zegoen. 1442an lortu zuen Tolosak aipatutako errege pribilegioa: Gipuzkoako portuetarako bidaietan, Nafarroatik zetozen edo Nafarroa zeharkatzen zirenekin salgai guztiak bertara eraman behar zituzten nahitaez".

XVIII. mendea

Mendeetan zehar gorabehera askorekin egin zen feria hori, eta XVIII. mendean asentatu zen behin betiko.

"Konbentzioko gerrak gastu handiak eta zor ikaragarriak eragin zituen. Beraz, ia ez zen baliabide ekonomikorik Udaletxea berreraikitzen. Egoera ekonomiko txarrak gipuzkoar ugari ere jo zituen, eta askok lapurretan eta eskean hasi behar izan zuten. Horregatik, Villafrancako udalbatzak 4 zaintzaile izendatu zituen, 1797an, hiribilduko bideetan zebiltzan susmo txarreko pertsona guztiak zaintzeko. Horrela, herritarren segurtasuna bermatu nahi zen.

Urte berean, 1797an, Villafrancak beste neurri bat hartu zuen, bere egoera ekonomikoa hobetzeko, eta gerrak sortutako krisitik lehenbailehen irteetako. Aste-eroko azoka berpiztea zen asmoa, Gaztelako Juana erregeak eman baitzion pribilegio hori, 1512an. Badiurdi urte batzuetan erabili zutela pribilegio hori, eta,

gero, adle batera utzi, ez dakigu zergatik eta noiz, baina susmoa da lurraldeak jasan zuen labore eta azien- da eskasiagatik izan zela: nola ez zegoen behar adina, ezin ezer saldu.

Urte batzuk lehenago ere, hiribilduak jadanik pentsatu zuen pribilegioa berrartzea eta astero azoka bat egitea herri barruan. Eta, 1768an, behar ziren urratsak egitea erabaki zen, frankizia hori berreskuratzeko, horren jatorrizko agiria galdua baitzen. Baina, eginbide ugari eginagatik, Villafrancak ez zuen berreskuratu ekubide hori.

1787an, ordea, Juana erregeak hiribilduari emandako jatorrizko pribilegioa aurkitu zuen Aravaca herrian, Madrilatik hurbil. Horrek ikaragarri erraztu eta bizkortu zuen azoka egiteko agiriak izapidetzea, eta erregeak onartu behar zuen hori; dena den, jatorrizko agiria edukitzeak balio handiagoa ematen zion eskaerari. Eskara zuritzeko, 1512an jasotako pribilegioa ez ezik, txosten bat ere aurkeztu behar zen, eta, hor, Villafrancak berriro azoka edukitzeko arrazoiak eman behar ziren. Honako hauek eman zituzten: hiribildua Errege Familiaren ibilbidean zegoela, tropen ibilbidean zegoela halaber; Tolosak eta Segurak, hots, hiribildurik hurbilenek ez zutela azokarik egiten asteazkenean, eta hiribilduan honako hauek salerosi zitezkeela: garia, artoa, zekalea, gaztainak, oloa, algarrobo lekak, baba, ilarra, artatxikia, txitxirioak, arbendolak, mahaspasak, pikuk, limoiak, laranjak, etab. Baina hainbeste irrikatutako baimena ez zen 1797 arte heldu. Hain zuzen ere, 1797ko abenduaren 27an egin zen berriro Villafrancako asteroko azoka, eta ia-ia etenik gabe egin da gaur arte.

Berriz ere, azoka egiteak izugarri lagundu zien hiri-

bilduari eta biztanleei. Villafrancako gizartea, politika eta ekonomia erabat zaituta utzi zitzakeen hondamendiaren ondoren, azoka irtenbide bat izan zen, krisitik irteteko modua. Jadantik 1512an, onik irteten lagundu zion hiribilduari zoritxarreko sutetik. Oraingoan, XVIII. mendean, ekonomia indarberritzen lagundu zuen, lur jota baitzegoen hori, bereziki Konbentzio Gorraren ondotik.

XIX. mende osoan zehar, Kontzejuak azoka hobetzeko ardura hartu zuen, eta hainbat alderdi eta gai arautu zituen”.

1870

Trenbidearen etorrerak bultzada izugarria eman zion ferieri.

1925

Plaza Nagusia da feriarene funtsezko gunea. 1925 urte-tik estalita dago, bereziki asteroko feria egiteko diseinatu zen egitura berezi batekin.

2002

Ostiral arratsaldetako feria egiten hasi ziren. Feria desberdina, denboraldiko produktuak eta kalitate handi-koak nabarmentzen dira, eta elikadura-ekoizpen aldetik garanti osokoak.



“Villafrancako udalak asteroko azoka arautzeko XIX. mendean hartutako erabakiak”:

Urtea Erabakia

- 1810** Debekua ezartzen zaie birsaltzaileei, zenbait produktu erosteko: arratsaldeko hiruak arte, udan, eta ordu biak arte, neguan.
- 1810** Arratsaldeko hirurak arte udan, eta ordu biak arte neguan, hiribilduko biztanleek bakarrik eros ditzakete azokako produktuak.
- 1826** Ez zaie azokara sartzen uzten, data eta ordu jakin batzuetan, zaldi-tratulariei eta trafikanteei.
- 1844** Asteroko azokaren pribilegioa berritua da, 1842an baitzen iraungia.
- 1877** Araudia egiten da kanpoko saltzaileentzat, Udalak ezarritako kopurua ordaindu dezaten, erabiltzen duten tokiagatik, eta hiribilduak ezarritako tokian jarri daitezten, saltzen duten produktuaren arabera.
- 1878** Hiru asteazkenetan jarraian bere mahaia dagokion lekuan ipintzen ez duenak, eta dagokion zerga ordaintzen ez duenak, saltzeko eskubidea galduko du.
- 1885** Bertan behera uzten da azoka udan, kolera izurriteagatik.
- 1895** Plazan postuak ipintzearen zerga kobratzeko arau berria.
- 1896** Debekua ezartzen zaie birsaltzaileei, hiri barrutik kanpo eta hiribilduaren jurisdikzioan erosteko.
- 1897** Xedapena onartu da, gaztaina salmenta Kontzeju Etxeko arkupean egin dadin, eta haren salmentaren zerga arautu da.
- 1897** Zerga arautzen da, saltzaile bakoitzak dituen postuen arabera.
- 1898** Arautze berria egin da, antxumeak eta arkumeak saltzeko tokia Kontzeju Etxearen arkupean ezartzeko.



ASEPLAN S.L.
A H O L K U L A R I T Z A · E N P R E S A K

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



www.txekin.net


Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnadia 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

O



Itsasondo

Urkiko jaiak

Irailak 12, larunbata:

20:00etan: Suziri jaurtiketa jaiei hasiera emateko.

21:00etan: Lagunarteko afaria elkartean.

23:00etan: Laja eta Mikel trikitilariak goizalderarte.

Irailak 13, igandea:

10:00etan: Meza nagusia.

11:00etan: Hamaiketako Olarte anaiak trikitilariekin.

14:30ean: Bazkaria.

18:30ean: Aizkorariak: Olasagasti, Arrospide, Azurmen-di eta Ugarteburu.

20:00etan: Olarte anaiak trikitilariak.

Irailak 14, astelehena: Gurutze deunaren eguna:

11:00etan: Meza nagusia.

Ondoren: Hamaiketako Jose Inazio Zubeldia trikitilariarekin.

14:30ean: Bazkaria.

19:00etan: Erromeria Jose Inazio Zubeldia trikitilariarekin.

Zerain

XV. Azoka ekologikoa izango da irailaren 20an

Aurten kultur asterik izango ez bada ere, Azoka Ekologikoa ez du hutsik egingo. Hamabosgarren urtez, Azoka Ekologikoa izango da irailaren 20an, goizeko 10etan hasita.


Egun horretan, produktu ekologikoa izango dira protagonista Zerainen. Barazkiak, txerriak, ogia, eztia, gazta, kosmetiko naturalak, ardoa, sagardoa, tinte naturalekin egindako jantziak, olioak, baratzeak, gozoak... Biolourreko kideek, informazio postua ere izango dute.

Ohi bezala, tailerrak, erakusketak, ikuskizunak eta artisauek ere izango dira: gozogintza, tinte naturalak, erlezantzen inguruan erakusketak, artisautza, tola... Aurten ikuskizun berezia perratzaileak eta errementariak egingo dute.

Arratsalde partean, 19:00ak aldera, herri kirolak izango dira.

GIPUZKOAKO NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN XIV. AZOKA

Azoka baino gehiago



IRAILAK 20 ZERAIN

9:00etatik 14:00etara azoka

Goizez: erakusketak eta tailerrak

Arratsaldez: herri kirolak eta erromeria

ZERAIN PAISAIA KULTURALA



- Herri Museoa, Larraondo Zerrategia, Burdinaren Mendia, Kartzela.
- HARIZTI-ERDI ATERPETXEA
- MANDIOA DENDA: herriko produktuak, artisautza
- INFORMAZIO BULEGOA: urte osoan zabalik

Herriko Plaza z/g Tel: 943 801 505 Faxa: 943 801 606 turismobulegoa@zerain.com



Itsasondo

Herriko festak, irailaren 18tik 20ra

Irailak 18, ostirala:

16:30etan: Zinta karrera, Ginkana eta abar...

18:30etan: Haur eta gazteen futbol erakustaldia.

19:30etan: Itsasondo-Aramaren futbol derbya.

21:30etan: Herri afaria, ondoren dantzaldia: Patxi Perez eta Konpainia.

Irailak 19, larunbata:

9:00etan: Goiz eresia.

11:00etan: Altxagaratera igoera.

12:30etan: Haurrentzat antzerkia.

17:30etan: Herri olinpiadak.

20:00etan: Mozorro gauaren hasiera.

20:00etan: Sukaldaritza lehiaketa.

22:30etan: Dantzaldia 'Norekin dantza' taldearekin goizaldera arte.

5:00etan: Goiz danborrada (matutina).

Ondoren: Txokolate jana.

Irailak 20, igandea:

9:00etan: Goiz eresia.

11:00etan: Puzgarriak.

12:00etan: Hamaiketako udaletxe azpian.

13:00etan: Herri kirolak.

14:30etan: 'Kuxkuxtu' taldeak alaituriko herri bazkaria.

16:30etan: Puzgarriak eta haurrentzako tailerrak.

18:00etan: Herriko enparantzan mus txapelketa.

18:00etan: 'Kuxkuxtu' taldearen musika emanaldia.

18:30etan: Txirindu lehiaketa; haurrentzako kriteriuma.

20:30etan: Sagardo dastaketa.

Mutiloa

Lierniko jaiak

Irailak 6, igandea:

Goizeresia Segurako txistularien eskutik.

09:30etan: XXVIII. Lierniko Txirrindulari proba (gazte maila), Lierniko Txirrindulari elkartearen eskutik. Probak bi zati izango ditu: lehenengo zatian 60 kilometroko ibilbidea egingo da; bigarren proba erlojupekoa izango da Seguratik Liernira bitartean.

13:00etan: Meza Nagusia.

13:15etan: Toka lehiaketa. Eguerdiko parteko soina Olarte anaiak trikitilarien eskutik.

14:30etan: Herri bazkaria plazan, erromeria giroan.

18:30etan: Herri kirolak: aizkoran Iñaki Azurmendi eta Iñaki Aierbe eta harri jasotzen Joseba Ostolaza.

Ondoren: Olarte anaiak trikitilarien eskutik erromeria

Irailak 8, asteartea: Lierniko Andre Mari eguna:

11:30etan: Meza nagusia.

Egun osoan: Erromeria Elustondo anai-arreba trikitilarien eskutik.

Lazkao

Maizpideko ekintzak

Irailak 3, osteguna: Clown saioa, May Gorostiagaren eskutik. Maizpideko Zinema Aretoan, 21:30etan.

Irailak 16, asteazkena: Aitor Furundarenaren kantaldia, Maizpideko Zinema Aretoan, 21:30etan.


Irailak 22, asteartea: Xanbe abesbatzaren kontzertua, Aleria Zineman, 21:00etan.

Irailak 24, osteguna: Bertso afaria, Angel Mari Peñagarikanorekin eta Jokin Sorozailekin, 21:30etan.



GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN



MUJIKA 19

MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



LEIAR **LEIAR** **KRISTALDEGIA**

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70
BEASAIN



Zientziaren aurpegi alaiaren bila!

gizarte ekintza
hezkuntza

www.miramón.org
☎ 943 01 24 78
DONOSTIA

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net **kutxa**

Beasain

Igartza-Loinatz auzoko jaiak

Irailak 8, asteartea:

18:00etan: Meza eta Erromeria, txistulariek lagunduta, Loinazko Ama Birjiniaren ermitan.

Irailak 11, ostirala:

19:00etan: Txupinazoa. Ondoren buruhandi eta txistulariak. Azkenik goxokiak.

20:00etan: Ardo eta txistorra dastaketa.

20:30ean: Monologoa ardo dastaketan.

22:30ean: Kontzertuak: Makulu-ken eta beste bi talde.

23:30ean: III. Txapel jaurtiketa.

Irailak 12, larunbata:

11:30ean: Marrazki tailerra eta altxorraren bila. Ondoren hamaiketako.

12:00etan: Igartzako dantzarien irteera, Aurtzaka dantza taldearekin.

12:30ean: Igartzako eta Vendrelleko dantzak Aurtzaka Dantza Taldearekin Igartza multzoan.

13:30ean: Sagardo eta odolki dastaketa Dolarean.

15:00etan: Futbito txapelketa.

16:00etan: Mus txapelketa.

17:00etan: Erretiratuentzako toka eta igela.

17:00etan: Patata tortilla lehiaketa.

17:00etan: Haur jolasak.

17:30ean: Erromeria Aiko taldearekin.

19:00etan: Askaria.

21:00etan: Afaria.

22:30ean: DJ.

23:00etan: Ikuskizuna.

Irailak 13, igandea:

12:00etan: Herri Kirolak.

17:00etan: Hauarentzako pintxo hotz tailerra.

18:00etan: Malabare/pailazo ikuskizuna.

19:00etan: Buruhandiak. Gero gozokiak.

Beasain

Beasainmendiko jaiak

Irailak 5, larunbata:

21:00etan: Herri afaria eta Auzoko mus txapelketa.

Irailak 6, igandea:

08:00etan: Suziriak.

11:00etan: Herri meza trikitilari eta bertsolariekin.

11:30ean: Kros herrikoa.

11:45ean: Aizkorri Mendizale elkartekoei ongi etorria.

12:00etan: Laja eta Mikel trikitilariak.

Ondoren: Mikel Mendizabal eta Iker Zubeldia bertso-lariak.

13:00etan: Aurtengo agure omenduari oparia emango zaio.

Ondoren: Jokinen oroimenean aureskua eta lore eskaintza.

13:00etan: Herri kirolak: Iñaki Azurmendi eta Angel Arrospide, eta Arkaitz Jauregi eta Xabi Dorrosoro.

14:30ean: Bazkari herrikoa.

17:00etan: Haur jolasak.

18:30ean: Erromeria Laja eta Mikelekin.

Beasain

Igartzako Dantzarien eguna, irailaren 12an

Azkeneko urteetako ohiturari jarraituz, irailaren 12an, Igartzako Dantzarien eguna ospatuko da, Igartza jauregiaren inguruan. Eguerdiko 12etan hasiko da festa. Aurtengoan, talde gonbidatu gisa, Kataluniako Vendrelleko taldea izango da.

Eguna osatzearen eta Igartza auzoko jaiekin bat eginenez, arratsaldeko 5,30etan, Aiko taldearekin erromeria izango da.



LOTO PRIMITIVA
1 X 2

Festa onak pasa!

☎ 943 08 61 62
Igartza Oleta, 12
BEASAIN

ANZIZAR
T A B E R N A

Festa onak pasa!

Igartza Oleta, 8 ☎ 943 88 43 17
BEASAIN

Ataun

San Gregorioko festak

Irailak 3, osteguna: San Gregorio eguna:

11:00etan: Meza Nagusia eta ondoren salda beroa.

12:30ean: Toka txapelketa, ataundarrentzat.

14:30ean: Herri bazkaria, '11 birtute'-ko bertsolariek alaiturik.

18:00etan: Herriko Otsoak dantza taldea.

21:30ean: Herri afaria Elortza Anaiak trikitilariak alaiturik.

Ondoren: Elortza Anaiak trikitilariak erromeria goizeko ordu txikiak bitarte.

Irailak 4, ostirala: koadrila eguna:

13:00etan: Koadrilen juntaia txuriz jantzita. Ondoren, zintzur bustitzea.

14:30ean: Koadrilen bazkaria eta kale animazioa, Zelai pilotalekuan.

17:00etan: 'Elefante bitxia' txotxongilo emanaldia, haurrentzat, Plazako jolasgelan.

18:00etan: Erreka jaistea, kale animazioaz alaiturik. Ondoren, asto karrera.

21:00etan: Koadrilen afaria.

23:00etan: Rock kontzertua: Bisai, Humus eta Egurre.

Irailak 5, larunbata: umeen eguna:

10:00etan: Plater hausketa.

10:30ean: Juntaia eta ondoren kalejira buruhaundi ta trikitilariak.

11:00etatik 13:00etara: Ume jolasak. Jarraian opari banaketa.

16:00etan: 49. Txirrindulari afizionatuen lasterketaren hasiera. Lasterketaren amaiera eta sari banaketa.

19:00etan: Segidan umeen moztorro festa, Skapando taldeak alaiturik.

23:00etan: Bertso saioa, dohainik.

01:00ean: Gaztetxo moztorro lehiaketa sari banaketa.

03:00etan: Helduen moztorro lehiaketa sari banaketa.

Irailak 6, igandea:

11:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Salda beroa.

12:30ean: Herri kirol saioa. Aizkoran, Azurmendi eta Otaño, eta Aierbe eta Arrospideren aurka. Harri jasotzen, Aimar Irigoien.

18:00etan: Esku pilota partiduak: Arratibel-Albisu, Arratibel Munduateren aurka; Albisu-Arratibel, Apezetxea-Zubiriren aurka.

Ondoren: Ataungo artzainen gazten dastaketa.

 **JULIAN MUJIKA**
Harategi - Urdaitegia
Bertako txekorra, etxeko txorixo eta odolkiak
Festa onak pasa!
Igartza Oleta, 10 ☎ 943 88 01 96 **BEASAIN**

PSIKOLOGI KLINIKOA
 Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42001
AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN
Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

 **ZUGAZTIBI**
AHOLKULARITZA

• Laborala
• Fiskala
• Kontablea
• Juridikoa
• Aseguruak
• Inmueble agentzia
zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA
9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA

Ikaskide-urrats akademia
Joan Iturralde, 5 - 943 160 120 eta Urbialde plaza 7- 943 027 792
685 722 403 - 675 006 462
www.ikaskide.net
2009-2010 ikasturtea
ESKOLA LAGUNTZA: Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Modulua.
HIZKUNTZA ESKOLA: Ingelera eta Frantsesa. 6 urtetik aurrera.
UNIBERTSITATE MAILA: Mondragon Unibertsitatea (Goierrri).
MEKANOGRAFIA eta INFORMATIKA: Bakarka edota tutoritzapean.
LAGUNTZA PEDAGOGIKOA: Arreta gabezia, irakurmena, kalkuloa...
IKASKETA TEKNIKAK TAILERRA: Ikasten ikasteko.

Autowag  
☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN



Beasaingo lagun taldea 1949an

Jose txo Zufiaurrek ekarri digun argazkian, Maritxu Urteagaren ezkontza 'despedidan' bildu ziren lagun taldea ageri da. 1949ko ekainaren 12an edo 19an bildu ziren.

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Maritxu Artolain, Milagros Olano eta Margari Aiesta.

Bigarren ilaran: Josefa Cia, Isabel Etxezarreta, M^a Agustina Garcia, Pepita Telleria, Isabel Urteaga, (ezezaguna), Antonia Urteaga, Feli Urkia, M^a Luisa Guridi, Mariatxo eta Joxepi Zabaleta.


Hirugarren ilaran: Victoria Garmendia, (ezezaguna), Izaskun Erkiaga, M^a Luisa Azkarate, Carmen Urteaga, Meritxe Elzo, Rosario Urteaga, Lopez, Agueda Larrañaga, Mari Urkia, (ezezaguna), (ezezaguna) eta M^a Josefa Urkia.

Aurrean eserita: Isabel Unzueta, Veroni Murgiondo, Antonia Garmendia, Pepita Larrañaga, Rosario Garmendia, Maritxu Urteaga, Pilar Garmendia, Josefa Garmendia eta M^a Luisa Larrañaga.



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



kudeaketa

fiskala

kontablea

merkatala

laborala

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Urdaneta, 7



Egurrezko
leihoak,
kontraleihoak,
ateak eta
eskailerak
neurrita.



**JANTZI ZURE ETXEA
EGURREZ**

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55

Cuatrovientos Industrialdea, 1

Txarama Auzoa 20491 LEABURU



● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04




zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argioptika.com

PRADA D&G VERSACE BURBERRY

refacture



SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

suquia

elektragailuak

Elektragailuetan azken berrikuntzak

KALE NAGUSIA, 10

TEL.: 943 882 300 FAXA: 943 881 348

ORDIZIA 20240 GIPUZKOA

e-posta: suquia@suquiahogar.com

NAFARROA ETORBIDEA, 16

TEL.: 943 884 375 FAXA: 943 805 250

BEASAIN 20200 GIPUZKOA

Induziozko plaka bitrozeramikoak



Bakarrik garbitzen diren labe pirolitikoak

Arropa garbigailu elektrikoak



Neurri guztietako izotzgailuak

Irudiak kalitate hoberenean



DIGITAL+ BANATZAILEA

Disko gogorren grabaketa TDTarekin



Gure izatea kalitatea eta zerbitzua

Etxean bertan martxan jartzea dohainik